

6.a

1.  
LAGUNTZA  
FITXAINFORMAZIOAREN KOMUNIKAZIOA  
ETA KUDEAKETA

Teklatua ezagutu – testu bat idatzi



Informatika anitz erabiliko da testuak idazteko. Lan hori programa berezi baten bidez burutuko da : TESTU-TRATAMENDUA.

1. TEKLATUA : testuak idazteko erabiliko da.

Baina kasu ! Puntuazio eta tipografia arauak badaude eta ongi begiratu beharko dira testu bat idaztean !

– Hona hemen bete behar diren puntuazio arau horiek :

Puntuazio- ikurrak	ikurra	aitzin	ondotik	adibideak
,	Kakotxa	tarterik ez	tarte	Ordenagailua, periferikoak.
.	Puntua	tarterik ez	tarte	Garatzen du. Azaltzen du.
...	Eten-puntuak	tarterik ez	tarte	Garatzen du... Azaltzen du...
:	Bi puntu	tarte	tarte	Hauxe badu : ordenagailu bat, inprimagailu bat
;	Puntu kakotxa	tarte	tarte	Etorri da ; afaldu du.
!	Harridura- ikurra	tarte	tarte	Zu ! Nekez !
?	Galdera- ikurra	tarte	tarte	Non ? Noiz ? Nola ?
'	Apostrofoa	tarterik ez	tarterik ez	Agur t'erdi.
(	Idekitzeko parentesia	tarte	tarterik ez	Periferiko hauek (sagua, teklatura) baitezpadakoak dira
)	Hesteko parentesia	tarterik ez	tarte	Periferiko hauek (sagua, teklatura) baitezpadakoak dira
-	Lotura- marratxoak	tarterik ez	tarterik ez	Puntuazio-ikurrak
-	marratxoak	tarterik ez	tarte	- sagua - teklatura


- Erabiltzen dugun teklatura « **AZERTY** » motakoa da eta 105 tekla bederen dauzka, zati ezberdinetan banatzen direnak. Hego Euskal Herrian « **QWERTY** » motako teklatura aurkituko dugu ordenagailuetan.

Ikur aintzeko teklak

Funtzio teklak

Nabigazio eta txertatze teklak

argi-seinaleak









Teklatu alfanumerikoa

Zuriune-barra

Sartze tekla

Zenbakizko teklatura

- Testuak **maiuskulaz** edo **minuskulaz** idatz daitezke. Maiuskulaz idatzi nahi denean, **SHIFT**  tekla zapaturik atxikiz hizkia sakatzen da. Hainbat hizki idatzi nahi dugunean molde honetan, lehenbizikorik **Caps Lock**  (teklatura gakotu) zapatu behar da : funtzio honi dagokion argi-seinalea pizten da. Berriz minuskulaz idatzi nahi bada, **SHIFT** tekla sakatzen da : argi-seinalea itzaltzen da.
- **Sartze tekla** :  arras garrantzitsua da, honen bidez aginte bat edo hautu bat balidatuko baita edo testu bat idaztean, ondoko lerroa pasatzen ahalko baita.
- **Ezabaketa** : karaktere bat bi teklaren bidez ezabatuko da
  - **ezabaketa teklaren** bidez  (Backspace), Sartze teklaren gaineko aldean dena, kurtsoarearen ezkerreko karaktereak ezabatzeko.
  - **SUPPR** tekla , kurtsoarearen eskuineko karaktereak ezabatzeko.
- Ikur aintzeko teklak : tekla batzuek ikur bat baino gehiago daukate, adibidez :  parentesia lortzeko, minuskula erabiliko da, 5 lortzeko **SHIFT** (maiuskula) sakatu behar da eta kakoa idazteko, **ALT GR** tekla momentu berean sakatu behar da.

## II. IDAZTEKO MOLDEA

Usaian, "kilometroka" idazten da, orriak zer itxura hartuko duen kontutan hartu gabe. Erregulariki **gorde** beharko da egindako lana, eta, ondarean, testua birmoldatzen da : **letra tipoa, lerrokatzea, lerroartekoa, azpimarratua,...**

### HITZ BAT HAUTATZEKO :

Saguaren kurtsorea hitzaren hastapenean kokatu, eria zapan atxiki, hitza sagua lerraraziz hautatu. Hitzaren atzeko plano kolorez agertzen da.

**Lasterbidea : klik bikoitza egin hitzaren gainean.**

Hitz bat edo hitz-multzo bat "formateatzeko" (edo forma berezi bat emateko) :

Hitza edo hitz-multzoa hautatu




Letra-tipoa eta tamaina hautatu



Estiloa hautatu

saguaren ezkerreko botoia zapan atxikiz, hitza edo hitz-multzoa hautatzen da - hautatu eta, botoia uzten da.



letra-tipoa

tamaina

estiloa

### Hitz bat mugitzeko :

Hitza hautatu (klik bikoitza), **EDITATU** menutik (edo saguaren eskuineko botoiaren bidez), **Ebaki** tresna hautatu : testutik desagertzen da eta ordenagailuaren memoria kokatzen.

Saguaren kurtsorea hitza ezarri nahi den tokian kokatu. **EDITATU** menutik (edo saguaren eskuineko botoiaren bidez), **Itsatsi** tresna erabili.

Molde honetan ere egin daiteke : hitza hautatu eta, saguaren ezkerreko botoia hitzaren gainean atxikiz, hitz hori nahi den lekura ekartzen da lerraraziz : "lerratu eta jaregin".

### Hitz bat ezabatzeko :

Hitza hautatu eta, **SUPPR** tekla sakatu.



### Huts bat egiten baldin bada :

**EDITATU** menutik, **Desegin** tresna hautatu azkenik egindako eragiketa desegina izan dadin. Tresna barrako ikono hau ere erabil daiteke :

